ELKARRIZKETA

“Hiriak aniztasunaren agertoki ederrak dira”

Koldo Atxagarekin solasean

Anartz Ormaza Ugalde
Arkitektoa (TEO Arkitektura) eta UEUko Arkitektura sailburua

Jasotze-data: 2017-12-27
Onartze-data: 2017-12-29

==========

Koldo Atxaga Arnedo Iruñean jaio zen 1970ean, eta egun Bilbon bizi da 1988an bertara unibertsitate-ikasketak egitera abiatu zenetik. Arte Ederretan lizentziatua da, eta Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea 2007tik (UPV/EHU). Haren tesiaren titulua: *Tipografia kaletarra: negozio txikien errotuluak Bilboko paisaian*. Urte berean, tesiaren harira, argazki-bilduma bat argitaratu zuen liburu eran, *Bilbao tipografikoa* titulupean (Ed. Bizkaiko gaiak, BBK). Gaur egun Publizitateko eta Harreman Publikoetako Graduan da irakasle, Diseinu Grafiko eta Sormen ikasgaien ardura duelarik. Horretaz aparte, diseinu grafikoko lanak garatzen ditu esparru anitzetan: hainbat ikus-entzunezko lanetarako, zenbait jaialdi eta ekimenetarako edo Katakrak argitaletxerako, adibidez.

Aldiri: *Hamar urte bete dira aurten Bilboko hiri-tipografiari buruzko zure tesia defendatu zenuenetik. Haren ondorioetako bat da, hein batean, komertzioetako errotuluek tokiko zentzuaren sorkuntzan eragiten dutela. Zer zioten (eta diote) Bilboko komertzioetako errotuluek Bilboko identitateari buruz? Aldatu al da Bilboko «zentzua» azken hamar urte hauetan, errotuluei so egiten badiegu?*

Koldo: *Denboran zehar, hirien zaporea halabeharrez aldatuz doa. Etengabeko garapenean dihardute, aurrera zein atzera; berezko eite dinamikoak ditugu hiriak. Hiriaren fisionomia osatzen duten elementu batzuk planifikatuak dira —hirigintza-planak, esate baterako—, baina beste batzuk antolamendu orokorrik gabe suertatzen dira. Kasu honetan, ekimen partikular anitzen multzoa dugu, bai eta garai historiko ezberdinen lagina ere. Errotuluek planifikatu gabeko mosaiko kolektiboa osatzen dute.*

Mendea hasi zenetik aldaketa deigarria gertatu da: garai bateko familia-negozioak, baita tailer txikiak ere, kaleetatik desagertuz joan dira. Ez da harritzeko kontua, gizartearen aldaketaren ondorioa baita, baina pertsonalitate bereziko errotuluentzako ekosistema larriki murriztu egin da.

A: *Hizkuntza-paisaiak funtzio sinbolikoa betetzen duela gauza aztertua eta jakina da. Eta errotuluak berebiziko elementuak dira toki batetako hizkuntza-paisaiaren definizioan. Zernolako hizkuntza-paisaia uste duzu irudikatzen zutela errotuluek orduko Bilbon? Eta oraingoan? Zer presentzia zeukan (edo dauka) euskarak errotuluetan?*

K: *Bilbok badu, zentzu honetan, halako jokabide eskizoidea. Nagusiki erdalduna izanik, keinu euskaltzalez josita agertu da. Francoren diktaduraren bukaera partean, bertoko identitatearen aldeko erreakzio sutsua suertatu zen. Euskarak, edo euskal erroko hitzek, plus bat ekartzen ei zuten. Gaztelania nagusi zen tokian, euskaldunok* trendy *izan ginen, nonbait.*

Globalizazioak, berriz, arrakasta-eredu berriak ekarri ditu. Marka transnazionalek euren identitate globala inportatu dute. Negozio txikiek ezin diote jokoari eutsi, biziraungo badute. Beste aukera batzuk baliatu behar dituzte. Hortaz, berezitasuna balio konpetitibo bilaka daiteke. Eta, zer dugu euskara baino gauza bereziagorik?

A: *Hizkuntza-paisaia toki bateko identitate bisualarekin lotuta dago zuzen-zuzenean. Identitate bisualaren arloan diharduzu zure irakasle-jardunean, esango al zenuke Bilboko errotuluetan Bilboko euskal identitatearen zantzurik topa genezakeela?*

Aldiri, 2017, IV, **32**, 3-5, ISSN 1889-7185

Irudiaren egilea ~ Ane Arzelus.

K: *Nire ustez, ez dago identitate bisual jakin bat hizkuntza bakoitzerako. Industria-garaitik aurrera, forma tipografikoa hizkuntzarengandik askatu egin zen. Hala ere, hamarkadetan luzatu den arestiko erreakzioaren ondorioz, deigarria izan da «euskal letraz» osaturiko errotuluen kantitatea. Bereizkuntzarik gabe erabili den kitsch tipografikoa dugu. Harategietan, jatetxeetan zein autoeskoletan aurki dezakegun tipografia sasi-bernakuloaz ari naiz. Egia esateko, garai bateko harginek landutako letren karikatura esajeratua dugu. Oso gutxi dira letra-estilo zahar hori modu jatorrean edo tentuz tratatu dutenak.*

A: *Zure alde sortzaileari so egiten badiogu, zure diseinu grafikoko lanetan (liburuen azalak, kartelak, irudi korporatiboak, ikus-entzunezko lanen azal edo kartelak…) hainbat teknika erabiltzen dituzu (collagea, fotomuntatzeak, ordenagailu bidezko diseinua…). Zeren arabera hartzen duzu bide bat edo beste? Gaiaren arabera, egitekoaren arabera…?*

K: *Enkarguaren espiritua zein den ulertzen saiatzen naiz, aurrena. Ideia kontzeptualari ematen diot garrantzi gehiena. Ondoren, publikoarengan kidetasuna piztuko duen estetika erabiltzen saiatzen naiz, neure errepertorioaren mugetan. Hala ere, geroz eta buruhauste gutxiago izaten dut. Buelta asko emateko betarik ez dut izaten, oso epe laburretan mugitzen bainaiz. Beraz, eskura daukadan baliabide azkarrenari eusten diot normalean. Edo memorian dudan erreferenterik freskoena hartzen ohi dut inspiraziotzat.*

A: *Oraingoan fotomuntatze bat proposatu diguzu* Aldiriko *azaleko irudi gisa, espresuki zenbaki honetarako sortutakoa (zinez eskertzen dizuguna). Kontaiguzu labur nondik nora iritsi zaren emaitza honetara.*

K: *Hiriaren errepresentazio ezohikoa nahi nuen eta, hara non, egurrezko maketa txundigarri hau aurkitzen dudan (Iruñeko Artxibategian). Mamia zeukalakoan, argazki batzuk hartu nizkion. Askotan, ideiak bidean agertzen zaizkigu. Adi egotea da kontua.*

A: *Hizkiak hiriko kaleetan murgilduta ikusten ditugu zure irudian, kale estuetan setiatuta moduan. Eta sakabanatuta, bata bestetik urrun. Mezurik ba al dago hizkien antolaketa horren atzean?*

K: *Lengoaia grafikoa poetikoa da ezinbestean. Egilearen bulkadan intentzio jakin bat dago beti, baina esanahia era poetikoan formulatzen da. Hortaz, mezua ez da hitzetara zuzen-zuzenean itzul daitekeen zerbait, bere magia galduko luke eta.*

Nire ustez, hiriak aniztasunaren agertoki ederrak dira: hizkuntzak, pentsamoldeak, bizimoduak edo jarrera estetiko ezberdinak elkarren aldamenean suertatzen dira. Guztiek, modu batean zein bestean, adierazpidea aurkitzen dute. Azaleko hizkiek bezalaxe.

===



Koldo Atxagaren lanaren lagin bat